



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 109. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Martxo



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
*"Una manera de hacer Europa"*

Eskualde Garapenarako  
Europar Funtza (EGEF)  
*"Europa egiteko modu bat"*

GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > **Proiektuak zehazteko faseari ekingo dio Eurohiriaren Plan Estrategikoak**

Martxoaren 3an, Urruñan bildu zen Euskal Eurohiriaren Mugaz Gaindiko Agentzia. Kudeaketa Kontseiluak, eta Bidasoa-Txingudi Partzuergoko, Sud-Pays Basque Aglomerazioko, Donostiako Udaleko eta Oarsoaldea Garapen Agentziako hainbat ordezkari hartu zuten parte bileran. Euskal Eurohiriaren 2014-2020 Jarduera Plan Estrategikoak aurrera egiteko oinarriak ezarri zituzten, proiektuak zehazteko fasea hastear da eta.

Bileran hartutako erabaki garrantzitsuenetako bat hauxe da: arlo ekonomikoari buruzko lantalde bat abian jartzea. Aurrerantzean, beraz, Agentziak beste gai batzuk landuko ditu orain arte landutakoez gain (mugikortasuna eta ingurumena). Mugaz gaindiko sustapen ekonomikoa ezinbestekoa bihurtu da, eta alor hauetan oinarritzen da: aeronautika, I+G+b, energia berriztagarriak eta smart cityak.

Fase honetan, proiektuak zehaztu behar ditu Mugaz Gaindiko Agentziak, eta horretarako, 5 lantalde jarriko ditu abian. Lantaldeok gai hauek jorratuko dituzte: berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzea, klima-aldaketara egokitzea eta arriskuen prebentzioa eta kudeaketa, tokian tokiko baliabideak babestea, baloratzea eta modu jasangarrian erabiltzea, ondasunen eta pertsonen mugikortasuna hobetzea eta eskumenak eta lurraldeen inklusioa indartzea.

*Informazio gehiago:*

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/-/euskal-eurohiria-garatzeko-bilera-egin-dute-gaur-urrunan>



### > **Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuak berri- egin dute Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Hitzarmena**

Martxoaren 14an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuak Mugaz Gaindiko Hirugarren Lankidetzaren Hitzarmena sinatu zuten Baionan. Hitzarmen hori 2020ra arte egongo da indarrean.

Bi erakundeen eskumenei buruzkoa da lankidetzaren hitzarmena, bi lurraldeen bizi-kalitatean, ongizatean eta garapen jasangarrian eragina duten eskumenei buruzkoa, alegia: gizarte-politikak; kultura, gazteria eta kirola; lurraldearen garapen jasangarria; berdintasun-politikak eta administrazio publikoaren modernizazioa.

Hitzarmenak berrikuntza bat dakar: Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoak zer proiektu zehatzetan arituko diren lankidetzan ezartzen duen eranskina. Bi urtetik behin, batzorde politiko batek hitzarmenaren jarraipena eta ebaluazioa egingo du, efizientzia irizpidetzat hartuta.

*Informazio gehiago:*

[http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2661/diputacion-foral-gipuzkoa-y-departamento-pirineos-atlanticos-firman-su-tercer-convenio-cooperacion-transfronteriza&anti\\_cache=1460380103697](http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2661/diputacion-foral-gipuzkoa-y-departamento-pirineos-atlanticos-firman-su-tercer-convenio-cooperacion-transfronteriza&anti_cache=1460380103697)



### > **Gipuzkoako herri eta hiriek beste eskualde edo herrialde batzuetako herri edo hiriekin trukeko senidetzeak egin ditzaten sustatzea helburu duen Elkarrekin programa deitu dute berriz ere**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kanpo Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak ELKARREKIN programa deitu du berriz ere. Deialdi horren helburua hau da: Gipuzkoako udalerriei laguntza ematea Lurraldeko udalerrientzako onura sozial, kultural eta ekonomiko zuzena dakarten jarduerak eta beste eskualde edo herrialde batzuetako herri eta hiriekin dituzten harremanak hobetzera bideratutako jarduerak egin ditzaten.

Honatz ELKARREKIN programaren helburu nagusiak:

- Udalei, udalerri eta hirien arteko senidetzeak egiteko, joera berriak eta praktika egokiak ezagutaraztea.
- Udalerrien arteko lankidetzaren harremanak ezartzera animatzea, ikuspegi global batetik begiratuta, eta komunikazio bitarteko iraukorak ezarri, etorkizunean lankidetzaren hobea izatea ahalbidetzeko eta esperientziak etengabe elkartrukatzeko aukera emateko.
- Senidetze-jarduerari eustea, Tokiko eta Eskualdeko Garapenerekin lotutako hainbat alderditan emaitza onak lortzeko, senidetutako udalerrientzako onura sozioekonomikoa sortuz.

Programaren onuradun izan daitezke Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietako mankomunitateak, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Gipuzkoan kokatuta dauden eta lurraldeko toki-erakundeekin harremana duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, hala nola elkarteak eta fundazioak.

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko apirilaren 30ean amaituko da.

*Informazio gehiago:*

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2016/03/30/e1602005.htm>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Euskal Eurohiriko eKop saria jasotzeko hautagai aurkezteko epea zabaldu da

Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren Mugaz Gaindiko Agentziak, Bihartean - Merkataritza Ganberak eta Mugaz Gaindiko Industriak eKop saria emateko beste deialdi bat egingo dutela iragarri dute. Sari horren helburua mugaz gaindiko lankidetzan diharduten lurraldeko eragile dinamikoenei egindako lana aitortzea da.

Eurohiriaren mugaz gaindiko espazioa garatzen, aitortzen eta balioesten laguntzen duten konpromisoak hartzen dituzten erakunde publikoek (unibertsitateak, teknologia-zentroak...) edo/eta pribatuek jaso dezakete eKop saria. Lehen saria irabazten duenak 3.000 euro jasoko ditu. Horrez gain, bigarren eta hirugarren geratzen direnek 1.000 euroko beste bi accesit jasoko dituzte.

Euskal Eurohiriaren webgunean eskura daiteke hautagaitza aurkezteko arauak eta dosierra. Hautagaitzak aurkezteko epea 2016ko apirilaren 29an amaituko da. Sari-banaketako zeremonia ekainaren 15ean egingo da Ficoban (Irun).

*Informazio gehiago:*

[http://www.eurociudad.org/index.php?id=105&tx\\_ttnews\[tt\\_news\]=456&cHash=3ba12cfbf6d8b34d5bcd4f70f5c38c0c](http://www.eurociudad.org/index.php?id=105&tx_ttnews[tt_news]=456&cHash=3ba12cfbf6d8b34d5bcd4f70f5c38c0c)



### > Nafarroa Akitania-Euskadi Euroeskualdean sartzea onartu dute

Martxoaren 18an, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen urteroko batzarra egin zen Arkauten (Araba). 2015eko jardueren balantzea onartu zen. Gainera, 2016. urtean Euroeskualdeak egingo dituen jardueri buruzko zenbait orientabide eman ziren.

Txandakako lehendakaritza (bi urtean behin aldatzen da) Akitaniako eskualdearen esku uzteaz gain (urte hasieratik, Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak barne hartzen ditu Akitaniak), batzarrean, beste gertakizun bat nabarmendu da: Akitaniak eta Eusko Jaurlaritzak onartu egin dute Nafarroako Foru Komunitatea euskal Euroeskualdearen proiektuan sartzea.

Beraz, aurrerantzean, AECTren jarduerak lurralde-eremu askoz handiagoan egingo dira: hegoaldean, Nafarroak Euroeskualdearekin bat egin du, eta iparraldean, berriz, Akitaniako, Limousingo eta Poitou-Charenteseko eskualdeak batu egin dira. Hori dela tarteko, Euroeskualdeak 9 milioi biztanle izango ditu, eta Europar Batasuneko lurraldearen % 2 hartuko du.

Nafarroa ofizialki Euroeskualdeko kide bihurtu arte (6 hilabete barru), Euroeskualdeko 2016ko aurrekontua 1,1 milioi eurokoa izango da, eta Euskadik eta Akitaniak finantzatuko dute, bakoitzak erdia. Gobernu kideek jarritako diruaz gain, Europar Batasunak Euroeskualdeari proiektu zehatz batzuetarako diru-laguntzak emango dizkiola aurrez ikusten da.

*Informazio gehiago:*

<http://www.aquitaine-euskadi.eu>

[http://www.transfermuga.eu/wp-transfer/presse/bilan\\_EUS.pdf](http://www.transfermuga.eu/wp-transfer/presse/bilan_EUS.pdf)



### > Eusko Jaurlaritzak “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” argazki-lehiaketaren bosgarren deialdia martxan jarri du

Ondoz ondoko bosgarren urtez, Eusko Jaurlaritzak gazteentzako argazki-lehiaketa jarri du martxan. Lehiaketa horrek euskal gazteria Europara hurbiltzea du helburu. Horretarako, gazteak animatzen ditu argazkien bidez adieraztera ea, haien ustez, Europak zer-nolako eragina izan duen haien inguru hurbilaren garapenean.

Ekimenak “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” du izena, eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintzako Zuzendaritzak sustatu du Facebook sare sozialaren bitartez. Gazteek Facebookean zintzilika ditzakete argazkiak eta, sormena erabiliz, Europari buruzko beren ikuspegia eman. Halaber, lehiaketan parte hartzen duten beste gazte batzuen argazkiei buruzko iritzia emateko eta irudien alde bozkatzeko aukera izango dute.

14 eta 25 urte bitarteko gazteek har dezakete parte lehiaketan. Izena emateko epea 2016ko apirilaren 23an amaituko da.

Puntu gehien lortzen dituen argazkiaren egileak Nikon reflex kamera bat irabaziko du. Bigarren lekuan geratzen den argazkiaren egileak Digital Go Pro kamera bat irabaziko du. Facebookeko orrialdea atsegin duten pertsonen boto gehien dituen argazkiak irabaziko du hirugarren saria, Sony erloju adimendun bat, alegia.

*Informazio gehiago:*

[http://www.ogasan.ejgv.euskadi.eus/r51-19239/eu/contenidos/informacion/concurso\\_foto\\_fb/eu\\_def/index.shtml](http://www.ogasan.ejgv.euskadi.eus/r51-19239/eu/contenidos/informacion/concurso_foto_fb/eu_def/index.shtml)

<https://www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Batzordeak Europako Seihilekoko herrialdeen txostenak argitaratu ditu

Europako Batzordeak herrialdeen txostenen beste argitalpen bat atera du Europako Seihilekoa delakoaren esparruan.

Europar Batasuneko ekonomia- eta aurrekontu-politiken koordinazio-zikloa da Europako Seihilekoa. Europar Batasuneko ekonomia-gobernantzako zikloa da, eta urtearen lehenbiziko sei hilabeteak aintzat hartzen ditu. Horregatik esaten zaio seihileko. Europako Seihilekoan, Europar Batasuneko kide diren estatuek beren ekonomia- eta aurrekontu-politikak egokitu egiten dituzte, Europar Batasunean adostutako helburuekin eta arauekin bat egin dezaten.

Txostenean, hiru eremu bereizten dira: egoera makroekonomikoa, egoera fiskala eta Batzordeak urtero Europar Batasuneko kideei egindako gomendio zehatzetan egindako aurrerapausoak.

Azterketa honek erakutsi du 12 herrialdek, Espainia tartean, desorekaren bat dutela. Espainiak, nagusiki, alderdi hauek hobetu behar ditu: zor eta langabezia-tasa handiak.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/spain/images/semestre-16.png>





### > Europako Kontuen Auzitegiak bere kezka adierazi du BEZaren ordainketan sumatutako iruzur handia dela eta

Europar Batasuneko Kontuen Auzitegiaren azken txostenak gomendatzen du herrialde kideen arteko koordinazioa hobetzea, Europar Batasuneko BEZaren ordainketan egindako iruzurrari aurre egiteko. Estatu kideek 40.000-60.000 milioi galtzen omen dituzte urtero zerga-bilketan, BEZaren esparruan egindako iruzurratik.

Kontuen Auzitegiaren txostenaren arabera, mugaz gaindiko BEZaren ordainketan egindako iruzurrari aurre egiteko gaur egun erabiltzen den sistema ez da behar bezain eraginkorra, aldera ditzakeen hainbat datu eta adierazle faltan dituelako.

Kontuen Auzitegiak 14 gomendio proposatu ditu: BEZaren esparruko iruzurrari buruzko estatistikak biltzeko sistema bat sortzea herrialde guztientzat; aduanako datuak eratzeko sistemak ezartzea; Eurofisc alerta azkarreko sistema hobetzea, arrisku handiko eragileengan jartzea arreta, eta abar.

*Informazio gehiago:*

[http://www.eca.europa.eu/Lists/ECADocuments/SR15\\_24/SR\\_VAT\\_FRAUD\\_ES.pdf](http://www.eca.europa.eu/Lists/ECADocuments/SR15_24/SR_VAT_FRAUD_ES.pdf)

### > Batzordeak langileen lekualdatzeei buruzko zuzentarauaren erreforma aurkeztu du

Martxoaren hasieran, Europako Batzordeak langileen lekualdatzeei buruzko araudiaren berrikuspenera aurkeztu zuen. Proposamenaren helburua hau da: langile bat estatu kide batean lanean ari bada, eta enplegu-emaileak beste estatu kide batera lan egitera bidaltzen badu aldi baterako, langile horren lekualdatzean lehiakortasun leiala bermatzea eta langilearen eskubideak errespetatzea. Zehatzago esanda, jatorriko enpresak eta langilea hartzen duen herrialdeko enpresen artean bidezko soldata-baldintzak bermatzea da ekimenaren helburua.

Merkatu bakarrean mugaz gaindiko zerbitzuak ematearen ondorioz izaten dira langileen lekualdatzeak. "Lekuz aldarazitako langilea" deritzo EBeko estatu batean lan egiten duen baina, enplegu-emailearen aginduz, aldi batean, beste estatu kide batera lan egitera doan langileari.

2010etik 2014ra, % 45 igo da lekuz aldarazitako langileen kopurua. 2014an, Europar Batasuneko estatuek 1,9 milioi langile bidali zituzten beste estatu kide batzuetara lan egitera.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_MEMO-16-467\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-16-467_es.htm)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Operatiboari esker, ia 353 milioiko inbertsio publikoa egin ahal izango da (Estrategia Empresarial aldizkaria, 2016ko martxoa)

Estrategia Empresarial aldizkariko artikulua honetan, labor azaltzen da Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Operatiboa. Programa horri esker, Euskadin 352,9 milioi euroko inbertsioa egin ahal izango dute administrazio publikoek. Izan ere, Europar Batasunak inbertsio horren % 50 finantzatuko du EGEF programaren bitartez.

*Informazio gehiago:*

<http://www.estrategia.net/estrategia/POPV%20FEDER/tabid/636/ItemID/55208/View/Details/Default.aspx>

### > Enplegua eta integrazio politiko eta soziala: Europa berri baterako proposamenak (Eurobask)

XIII. Francisco Javier de Landaburu Universitas Sarietan, bi accesit eman zituen Eurobaskek (Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak). Argitalpena bi accesit hauei buruzkoa da:

- **Europako gizarte-josturak: berrikuntza-testuinguruak eta produkzio-inguruneak.** Egileak: Auxkin Galarraga, Álvaro Luna. Zuzendaria: Ander Gurrutxaga. Krisi luze honek Europako gizartearen kohesioarengan eragindako ondorio txarrei buruzko hausnarketa. Kohesioa lortzeko, ezinbestekoa da "gizarte-jostura" berriak sortzea, Europako gizarteko kideen interesei erantzuteko, eta Europa gizarte-ongizatea lortzeko tresna dela zabaldu dadin berriz ere.
- **Lan duinaren eta gazteen enpleguaren agenda.** Egilea: Julia López. Lan honek gure gizartearen erronka handienetako bat du aztergai: langabezia eta enplegu-kolokatasuna Europako gazteen artean. Arazo horrek egungo gazteen ongizatea ez ezik etorkizuneko Europako gizartea ere jartzen du arriskuan. Lan-merkatuan sortu den polarizazioa salatzen du lanak. Horren ondorioz, gazteak lan-merkatutik baztertuta geratu dira eta lan-eskubideek oinarrizko eskubide izateari utzi diote.

*Informazio gehiago:*

[http://www.eurobask.eus/wp-content/uploads/2015/05/libros/UNIVERSITAS\\_2014.pdf](http://www.eurobask.eus/wp-content/uploads/2015/05/libros/UNIVERSITAS_2014.pdf)



### > Nazioarteko egoera euskal gizartearen arabera (Eusko Jaurlaritza)

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen azken txostena. Euskal gizarteak nazioarteko egoerari buruz, eta, zehazki, nazioarteko terrorismoari buruz, zer iritzi duen aztertzen du nagusiki.

2016ko otsailaren amaieran, EAEko 1.000 etxetan egindako inkesta telefonikoetan lortutako emaitzetan oinarritu dira txostenaren ondorioak.

*Informazio gehiago:*

[http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7807/TXOSTENA\\_-\\_INFORME\\_Nazioarteko\\_egoera\\_-\\_Situacion\\_internacional\\_17-03-2016.pdf?1458208965](http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7807/TXOSTENA_-_INFORME_Nazioarteko_egoera_-_Situacion_internacional_17-03-2016.pdf?1458208965)

### > **Euroku, hiriburutza (Donostia 2016) hobeto ezagutzeko jolasa**

Mugikorrerako aplikazio bat da, eta Donostia 2016 Europako Hiriburuari buruzko eta europar kulturari (gertaerak, hizkuntzak...) buruzko galderak biltzen ditu. Aplikazioak herritarren kultura maila neurtzea eta hiriburutza ezagutaraztea du helburu.

Erabiltzaileek ondoz ondoko hainbat galderari ongi erantzuten badiete, zenbait sari irabaz ditzakete: hiriburutzaren merchandisinga egiteko produktuak, hainbat ekitalditarako sarrerak, eta abar.

*Informazio gehiago:*

<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.codesyntax.euroku2016&hl=es>



## EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **EUROPA SORTZAILEA - Kultura Azpiprograma - Literatura itzultzeko proiektuak** (*informazio gehiago*)
- **BLUE LABS – Itsas-erronkei aurre egiteko irtenbide berritzaileak** (*informazio gehiago*)
- **IKASKETA URDINAK EUROPAN (EASME/EMFF/2016/1.2.1.2)** (*informazio gehiago*)
- **ERASMUS + (KA3): Hezkuntzari, prestakuntzari eta gazteriarri esker gizarteratzea (EACEA/05/2016)** (*informazio gehiago*)
- **ePROCUREMENT. Kontratazio publiko elektronikoa (CEF-TC-2016-1-eProcurement)** (*informazio gehiago*)
- **SEGURTASUNA ETA eSEGURTASUNA. (H2020-SEC-2016-2017)** (*informazio gehiago*)
- **Hezkuntzan, prestakuntzan eta lantokietan, genero-rolen inguruko jardunbide egokiak izatea eta estereotipoak gainditzea (JUST/2015/RGEN/AG/ROLE)** (*informazio gehiago*)